







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %9,7 egin zuen behera abuztuan, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %10,4, etxekoan %0,8 eta zerbitzu arloan %15,2 jaitxi zen. Abuztu arteko kontsumo metatuak %6 egin zuen behera; 2015eko epealdi berarekin erkatuta; etxeko sektorean %6,4 jaitxi zen, industrian %7,5 eta zerbitzu arloan %2,7. Industrian gora egin zuten sektoreak hauek izan ziren: garraiobideen eraikuntza eta ontzigtintza (%6,7), burdinazkoa ez den metalurgia (%7,4), beiragintza (%5,7) eta kautxuzko eratorriak (%5). Behera egin zutenak, ostera, siderurgia (%18,4) eta zementua (%2,2) izan ziren.

Gas naturala







Abuztuan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %18,7 egin zuen behera, 2015eko abuztuan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %62,8 jaitxi zen eta gainerako sektoreena %5,6. Abuztu arteko kontsumo metatuak %13,3 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (%41,3 CCTT-n eta %6,9 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Uztailan, garraioan erregaien kontsumoa %2,6 igo zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %3,5 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %3,3 egin zuen gora. Uztail arteko kontsumo metatua %3,9 igo da, 2015eko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %1,6 egin zuen gora eta A gasolioarenak %4,2.

Iturriak: EEEk prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Abuztuan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 95,9 milioi kupel izan zen (2015eko abuztuan izandakoaren aldean, %1,1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2,3 egin zuen behera kontsumoak, 13,6 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan, aldiz, %3,1 egin zuen gora, eta 11,6 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %0,9 igo zen, eta 20 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, oro har, Txinan %3,8, AEBetan %0,7 eta Europar Batasunean %1,1.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %2 egin zuen behera abuztuan, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Abuztura bitartean izandako kontsumo metatuak %3 egin zuen behera. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen abuztuan, %2,7, 2015eko abuztuan izandakoaren aldean. Abuztura bitartean izandako kontsumo metatuak %1 egin zuen behera. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %1,9 egin zuen behera uztailan, 2015eko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %0,6 jaitsi zen eta gasolioena %2,2. Uztailera bitarteko kontsumo metatuak %2,8 egin zuen gora, 2015. urteko epealdiaren aldean, (%1,9 igo zen gasolinena eta %3 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %12,7 egin zuen gora uztailan; uztailera bitarteko kontsumo metatua %6,8 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta ElAren datuetan

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 46,1 \$ (41,2 €) izan zen abuztuan. Urte mugikorren batez besteko prezioak %34,4 egin zuen behera (%30,4 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 41,2 €/MWh izan zen abuztuan; duela urtebetekoaren aldean, %26 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 14,4 €/MWh izan zen uztailean, eta %30 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Abuztuan, EGIX-en prezioa 13 €/MWh izan zen (2015eko abuztuan izandakoarekin alderatuta, %30,3 jaitsi zen). Spot merkatuetan, abuztuan Henry Hub-en prezioa 8,5 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 16,4 €/MWh (2015eko abuztuan izandakoaren aldean, %0,4 egin zuen gora eta %30,3 egin zuen behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, uztailean, gasolioaren prezioa 1,02 €/l izan zen (urtebetean %10,2 jaitsi da), eta gasolinarena 1,13 €/l (urtebetean %12,6 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,7 €/t izan zen abuztuan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %42,3 egin du behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.